



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/01/25

Bizkaiko Batzar Nagusiek, ikusteko gaiztasunak daukiezan personen alkarte baten eta Las Karreras auzoko bide segurtasunaren aldeko plataformaren erreibindikazioak jaso ditue

Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordeak beste saio bat egin dau gaur goizean. Bertan, Batzarretako taldeek kolektibo biren erreibindikazioak entzun ditue: alde batetik, Ikusmeneko aniztasun funtzionala daukien personak batzen dituan eta gizarte inklusiboaren eta anitzaren alde behar egiten dauen Aukera Berriak alkarteak; eta, bestetik, Abanto-Zierbenako Las Karreras auzotik igarotean izen bereko errepideak eragiten dituan arazoak konpontzeko behar egiten dauen N634 Soluzioa! Plataformea.

Aukera Berriak alkarteko hiru ordezkari izan dira Batzarretan ordezkatuta dagozan talde politikoaren aurrean alkarte horrek itsuek edo ikusmen urritasuna daukienenek garraio publikoak erabilteko orduan behar daben irisgarritasuna hobetzeko iradokiten dituan neurriak azaltzearen arduradunak. Hobekuntza horreek Metroan eta Bizkaibus zerbitzuan zentrau dira. Lehenengo kasuan, kexak, egokitutako salmenta makinari, geltokietan braillez idatzitako seinalerik, eta nasatan ikusteko arazoak daukienei trenak heltzen dirala jakinarazoten dauen megafoniarik ez egotean zentrau dira. Bizkaibusi jagokonez, salatutako gabeziak, markesinetan braillez idatzitako informaziorik eta autobus barruetan megafoniarik ez egotera bideratu dira.

Berba egiteko txandatan, Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa), erreibindikazio horreetatik askotarako soluzio teknikoak egon badagozala azpimarratu dau; Eduardo Andrések (Taldea Popularra) nabarmendu dauenez, ikusmen urritasuna daukien personak ez dira zertan autobus gidarien edo garraio publikoan doazan personen eskuzabaltasunaren zain egon behar; Nuria Atienzak (Podemos Bizkaia) gogoratuau dauenez, bere taldeak orain urte bi, Aukera Berriak alkarreak aitatu dituan gabeziak batzuk konpontzeko ekimena onestea lortu eban; Marimar Rodríguezek (Euskal Sozialistak) adierazo dauenez, erakunde publikoek holango eskariei erantzuteko beharra daukie, eta Garraio Sailak daborduko horren inguruko erabakiak hartu ditu, Bizkaibuseko geralekuetan denpora gitxi barru instalatuko dan markesina mota barri baten ehun terminal eskuratzea, adibidez; Zigor Isuskizak (EH Bildu) esan dauenez, oso garrantzitsua da esandakoa kontuan izatea une honetatik aurrera martxan jarriko diran garraio publiko azpiegituretan, eta Metro Bilbaoren zuzendaritza kritikau dau, 2014tik ez daelako hartu-emonik izan Aukera Berriak alkarreak; eta, bukatzeko, Aitor Ibarrek (Euzko Abertzaleak) gizarte inklusiboagaz daukien konpromisoa erreibindikau dau, eta urritasun moeta bat edo beste jasaten daben personak kolektiboakaz berba egiten jarraitzearen alde agertu da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Arriskua N634 errepidean Las Karrerasetik igarotean

Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordearen eguneko gai zerrendea, "N634 Soluzioa!" plataformako hiru kideren esku-hartzeagaz osatu da. Herritar talde hori 2018ko irailean sortu zuen Abanto-Zierbenako Las Karreras auzoan, udalerria zeharkatzen eta bitan zatitzen dauden ibilgailu pribaduen eta tona handiko kamioien trafiko handiak eragiten dituan istripu kopuru handiari eta osasunerako eta segurtasunerako arriskuei bukaerea emoteko.

Plataformaren bozeroaleek, orain arte Las Karreras inguruan izandako istripu ugarietan zenbatu diran 13 hildakoak azpimarratu ditue. Izan be, egunean 16.000 ibilgailu igaroten dira bertatik, horietatik 900 astunak, eta, ganera, 75 dezibelioetara heltzen dan zaratea sortzen dabe. Petronorren birfindegia eta hainbat industrialde, harrobi bat eta Portua inguruetan egotea eta, ganera, errepidez Kantabriagaz lotzeko bidea gertu izatea dagoz arazoaren jatorrian. Horrez gain, azpimarratu behar da azken 40 urteetan auzoa 300 biztanle izatetik 2.000 biztanle izatera pasau dan arren, errepideak ez dauela aldaketa nabarmenik jaso. "N634 Soluzioa!" plataformaren eretxiz, saihezbidea eregi behar da, baina onartzen dau holangorik egin arte beharrezkoa dala epe laburrean indarrean jarri beharreko soluzino aringarriak erabagitea.

Talde Mistotik, Arturo Aldecoak Aldundiko Garraio Saileko ordezkariakaz egingo dan bilerara arte itxoiteko eskatu deutse plataformako ordezkariet, ondorio barriak Batzarretako taldeei helduazo ahal izateko. Talde Popularreko Eduardo Andrések autortu dauenez, une honetan saihezbide hori ez dago aurreikusita Bizkaiko Foru Aldundiko aurrekontuetan, eta Garraio Saileko ordezkariakaz egingo dan bileraren emaitzaren zain egotea eskatu dau. Podemos Bizkaia taldetik, Nuria Atienzak trafikoa baretzeko azterlana eta Autobiagaz loturea ezarriko dauden bide alternatiboa prestetea proponidu dau. Josu Montalbanek, Euskal Sozialistak taldearen izenean, arazoa Batzar Nagusietako Batzorde honetara ekartea "ez dala alperrekoa izango" adierazo dau, eta Foru Aldundiak konponbidea bilatuko dauela ziurtatu dau. EH Bilduko Zigor Isuskizak, gai horretan agertzen diran alderdien eta eskumenen konplexutasuna jarri dau mahai gainean, eta saihezbidea eregiteko lehenengo aurrekontua daborduko egon badagola esan dau, 100 milioi euroko aurrekontuagaz. Irene Edesa Euzko Abertzaleak taldeko bozeroaleak, bere aldetik, proponidutako konponbideetako batzuk Aldundiaren eskumenetatik kanpo geratzen dirala esan dau, baina prest agertu da "eskaerea jasoteko eta bere eboluzinoaren jarraipena egiteko", konponbide egokia lortu arte.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/01/19

Las Juntas Generales de Bizkaia acogen las reivindicaciones de una asociación de personas con deficiencias visuales y de una plataforma por la seguridad vial en Las Carreras

La Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Bizkaia ha celebrado esta mañana una nueva sesión, en la que los grupos junteros han escuchado las reivindicaciones de dos colectivos: por un lado, la Asociación Aukera Berriak, que agrupa a Personas con Diversidad Funcional Visual y trabaja por el desarrollo de una sociedad inclusiva y diversa; y por otro, la Plataforma N634 Soluzioa!, que aboga por solucionar los problemas de la carretera homónima a su paso por el barrio de Las carreras, en Abanto-Zierbena.

Tres representantes de Aukera Berriak han sido los encargados de exponer ante los grupos políticos representados en la Cámara las medidas que sugiere esta Asociación para mejorar la accesibilidad a los transportes públicos de personas ciegas o con deficiencias visuales. Dichas mejoras se han centrado en el Metro y el servicio de Bizkaibus. En el primer caso, las quejas se han dirigido fundamentalmente a la ausencia de máquinas expendedoras adaptadas, la ausencia de señalética en braille en las estaciones, y la falta de megafonía en los andenes que informe de la llegada de los convoyes a personas con problemas de visión. En cuanto a Bizkaibus, las deficiencias denunciadas se han dirigido también a la ausencia de información en braille en las marquesinas y de megafonía en el interior de los autobuses.

En sus turnos de intervención, Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha incidido en la existencia de soluciones técnicas para muchas de estas reivindicaciones; Eduardo Andrés (Grupo Popular) ha subrayado que las personas con discapacidad visual no tienen por qué depender de la generosidad que puedan mostrar los conductores de autobús o las personas que les acompañen en el transporte público; Nuria Atienza (Podemos Bizkaia) ha recordado que su grupo logró hace dos años la aprobación de una iniciativa para solucionar algunas de las deficiencias señaladas por Aukera Berriak; Marimar Rodríguez (Socialistas Vascos) ha señalado que es obligación de las instituciones públicas atender este tipo de demandas, y ha mencionado que el Departamento de Transportes ha adoptado ya algunas decisiones al respecto, como la adquisición de un centenar de terminales en un nuevo tipo de marquesinas que está previsto instalar próximamente en las paradas de Bizkaibus; Zigor Isuskiza (EH Bildu) ha estimado la importancia de adoptar estas consideraciones en las infraestructuras de transporte público que se pongan en marcha a partir de ahora, y ha criticado a la dirección de Metro Bilbao por no haber mantenido contacto con Aukera Berriak desde el año 2014; y Aitor Ibarra (Nacionalistas Vascos) ha reivindicado el compromiso con una sociedad inclusiva, y ha abogado por seguir avanzando en la interlocución con los colectivos de personas afectadas por algún tipo de discapacidad.

Riesgo en la carretera N634 en Las carreras

El orden del día de la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía se ha completado con la intervención de tres representantes de la Plataforma “N634 Soluzioa!”. Este grupo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ciudadano fue creado en septiembre de 2018 en el barrio de Las Carreras de Abanto-Zierbena, con el objetivo de poner fin a la elevada siniestralidad y los consiguientes riesgos para la salud y la seguridad debidos al intenso tráfico de vehículos privados y camiones de gran tonelaje que atraviesa y divide en dos la población

Los portavoces de la plataforma han puesto el acento en los 13 fallecidos contabilizados hasta la fecha en los numerosos accidentes registrados en el entorno de Las Carreras, por donde circulan a diario 16.000 vehículos, 900 de ellos pesados, que provocan además un nivel de ruido que alcanza los 75 decibelios. La presencia de la Refinería de Petronor y de varios polígonos industriales, de una cantera y del Puerto, junto a la proximidad de la conexión por carretera con Cantabria, están en el origen de un problema agravado por el hecho de que el barrio ha pasado en los últimos 40 años de 300 habitantes a 2.000, mientras que la carretera no se ha modificado sustancialmente. “N634 Soluzioa!” entiende que la solución pasa por una variante, aunque reconoce que hasta tanto no se construya es necesario optar por soluciones paliativas a implantar en el corto plazo.

Desde el Grupo Mixto, Arturo Aldecoa ha recomendado a los representantes de la plataforma esperar a una próxima reunión con representantes del Departamento foral de Transportes para hacer llegar nuevas conclusiones a los grupos junteros. Eduardo Andrés, por el Grupo Popular, ha reconocido que la variante no está de momento contemplada en los presupuestos de la Diputación Foral de Bizkaia, y se ha remitido también al resultado del contacto con el Departamento de Transportes. Desde Podemos Bizkaia, Nuria Atienza ha propuesto un estudio de calmado de tráfico y la habilitación de una vía alternativa que conecte con la Autovía. Josu Montalban, en nombre de Socialistas Vascos, ha asegurado que el traslado del problema a esta Comisión de las Juntas Generales “no va a caer en saco roto”, y se ha mostrado convencido de que el ente foral buscará una solución. Zigor Isuskiza, de EH Bildu, ha puesto de manifiesto la complejidad de los diferentes aspectos y las competencias diversas implicados en la cuestión, y ha anunciado que existe ya un primer presupuesto para la construcción de la variante, con un presupuesto inicial de 100 millones de euros. Mientras que Irene Edesa, portavoz de Nacionalistas Vascos, ha precisado que algunas de las soluciones propuestas escapan a las competencias de la Diputación, pero ha mostrado su disposición a “recoger esta petición y a realizar un seguimiento de su evolución” hasta lograr una solución satisfactoria.